


## GEBren dokumentazio zentroko 2021eko iraileko artikulua nabarmenak



DE MIGUEL ÁLVAREZ, A., 2021. [\*Sobre la pornografía y la educación sexual: ¿puede «el sexo» legitimar la humillación y la violencia?\*](#) Gaceta sanitaria: Órgano oficial de la Sociedad Española de Salud Pública y Administración Sanitaria, vol. 35, no. 4, pp. 379-382. ISSN 0213-9111

Lan honen helburua da sexu-heziketa kritikoaren helburuei buruzko diziplinarteko eztabaida irekitzeko beharra eta premia argudiatzea. Ikuspegi filosofikotik eta genero-ikuspegitik, aztertu dira irabazi handiko negozioa den sareko pornografiaren eskuragarritasun hedatuaren ondorioak, gazteentzako sexualitate-eskola gisa. Artikuluak jorratu ditu gehien bisitatutako orrien edukien indarkeria eta misoginia, eta eztabaidarako bi hipotesi planteatu ditu: batetik, pornografia indarkeria erotizatzeko prozesuarekin lotzen ari dela eta prozesu hori neska eta mutilen arteko desberdintasuna legitimatzeko gune berri bihurtu daitekeela; eta, bestetik, ari dela sortzen mutilen eta nesken arteko espektatiba-desadostasuna sexu-bizitza onaren kontzeptuari buruz. Me too eta Cuéntalo bezalako mugimenduek eta "la Manada" bezalako epaiketetako polarizazio sozialak baieztatuko lukete halako desadostasuna. Ondorioetan islatu dira berdintasunaren balioarekin konprometituta dagoen eta egunetik egunera jazarpena eta sexu-abusuak eta -erasoak gutxiago onartzen dituen gizarte baten eta adingabeei sarbide libreko eduki pornografikoak, misoginia eta indarkeria eskola direnak, onartzen dizkien gizarte baten arteko kontraesanak. Gaur egungo hiru adibideren bidez, kontraesan horietatik eratorritako ondorio larrietako batzuk planteatu dira.


### RELATEC



LÓPEZ-FLAMARIQUE, M. y PLANILLO ARTOLA, S., 2021. [\*El alumnado de educación secundaria frente a las noticias falsas: resultados de una intervención didáctica.\*](#) RELATEC: Revista Latinoamericana de Tecnología Educativa, vol. 20, no. 1, pp. 39-56. ISSN 1695-288X

Sare sozialak informazio-iturri nagusietako bat bihurtu dira, batez ere gazteen artean. Era berean, informazio faltsuaren edo fake news-en sareen bidezko ekoizpena eta zirkulazioa areagotu egin da. Testuinguru horretan, funtsezkoa da gazteek estrategiak eta gaitasunak bereganatzea, kontsumitzen duten informazioaren irakurketa kritikoa egiteko. Azterlan honen bidez aztertu nahi da Bigarren Hezkuntzako ikasleek informazio faltsuarekiko duten portaera eta COVIDaren pandemian zehar online egindako esku-hartze didaktiko baten eragina. Esku-hartze didaktiko horren helburua zen ikasleek albiste faltsuak hautemateko gaitasunak garatzea. Ikerketa parte-hartzailea da, eta aurre-test eta post-test diseinua du. Emaitzek erakutsi dutenez, ikasleek gaitasun handiagoa izan

zuten faltsutasun mota batzuk identifikatzeko, hala nola frogatu gabeko informazioa eta informazio desitxuratua; hala ere, arazoak izan zituzten testuingurutik kanpoko informazioa edo hizkuntza diskriminatzailearen erabilera antzemateko . Gehien erabili zituzten estrategiak Interneteko datuen egiaztapena eta egiaztatzaileen erabilera izan ziren. Portaera desberdinak hauteman ziren informazio faltsua identifikatu zuten ikasleen eta identifikatu ez zutenen artean. Ondorioek adierazi dute ikasgelan informazioaren ebaluazioa modu integral, estentsibo eta transbertsanean lan egin behar dela , ikasleek lehendik dituzten trebetasunetatik abiatuta.



SERRANO GARCÍA, C., ROYO GARCÍA, P., LAORDEN GUTIÉRREZ, C. y GIMÉNEZ, M., 2021. [Cyberbullying en una muestra universitaria española](#). Revista Española de Orientación y Psicopedagogía, vol. 32, no. 2, pp. 132-149. ISSN 1139-7853, 1989-7448

Cyberbullingaren azterketa unibertsitatearen aurreko hezkuntza-etapetan oinarritu da, batez ere Bigarren Hezkuntzan. Lanaren helburua da unibertsitate-testuinguruan cyberbullingaren iraupenari eta ohiko formei buruzko datuak ematea. Lagina 4 gradu-titulazioko 776 ikaslek osatzen dute, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Irakasle-ikasketakoek, Gizarte Hezkuntzakoek eta Psikologiakoek ( guztira 131 gizonezko eta 654 emakumezko), eta horiek 1. ikasturtetik 4. ikasturtera matrikulatuta. Erabili zen Del Rey et al.-en ECIP-Q galdetegia (2015), online formatu batera egokitu zena eta biktimaren, erasotzailearen, biktimizatutako eta inplikatu gabeko erasotzailearen rolak identifikatzen zituena. Metodologia kuantitatiboa erabili zen. Emaitzek erakutsi dute parte-hartzaileen % 4k biktimizatutako jotzen dutela beren burua; % 7,9k erasotzailetzat eta % 1,4 erasotzaile-biktimizatutzat. Inplikazio-rolak lau ikasturteetan daude, eta azken ikasturtean handiagoa da biktimen eta erasotzaileen ehunekoa. Biktimizatzeko modu ohikoenak honako hauek dira: mugikorraren edo Interneten bidez iraindua izatea eta sare sozial batetik kanpo uztea edo baztertuta izatea; ondoren, urrun samar, mehatxuak, zurrumurruek zabaltzea edo informazio pertsonala eskegitzea daude. Ondorioztatu da cyberbullinga rol guztiekin dagoela unibertsitatean, eta beharrezkoa dela unibertsitateko orientazio-zerbitzuek esku hartzeko programak ezartzea cyberbullinga prebenitzeko eta murrizteko, eta sare sozialetan jardunbide egokiak sustatzeko; izan ere, dirudienek, gazteak helduago izateak ez du moteltzen ziberjazarpena.